

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**649/2024 Foru Agindua, abenduaren 16koa. Adieraztea interes publikokoa dela Erriberabeitiko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Ribabellosa, Quintanilla Erriberabeitia eta Igai kontzejuetan, kanalizazioa eta zuntz optikoko kablea jartzeko Telefónica de España SAUk sustatutako proiektua**

Telefónica de España SAUk obra lizentzia eskatu dio Erriberabeitiko Udalerri kanalizazioa eta zuntz optikoko kablea jartzeko Ribabellosa, Quintanilla Erriberabeitia eta Igai kontzejuetan (01-02139394 zenbakidun proiektua).

Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Telefónicarene proiektuaren xedea da zuntz zerbitzua Igai Pueblo oinarri estaziora eramatea, Erriberabeitiko udalerrian, eta horrek Ribabellosako, Quintanilla Erriberabeitiko eta Igaiko administrazio batzarrei eragiten die. Azpiegiturak ezartzeko, beharrezkoa da hiru hodiko kanalizazio txiki bat egitea (5.168 metro), eta dagozkion kutxatilkak egitea (8 HF motakoak eta 5 DMF motakoak). Kanalizazio hori oinarri estaziora sartzeko dauden bideen ardatzean egingo litzateke: Quintanilla kalea, Ribabellosa auzoa, La Fuente kalea eta Serena aurkintza.

Udal arkitektoak txostena egin du. Txosten horretan azaltzen da azpiegituraren trazadura zer gunetatik egitea aurreikusi den, bai eta dagozkion hirigintza eta sektore afekzioak ere, hala nola bide azpiegiturak, landa bideak eta ibilgu eta errekek. Horrenbestez, bidezkoa da Arabako Foru Aldundiko (AFA) Errepide Zerbitzuaren baimena, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren aldeko txostena eta Uraren Euskal Agentziaren (URA) baimena ematea.

Proiektuak lurzoru urbanizaezinean egiten duen ibilbideari dagokionez, udal txostenean jasota dago Quintanilla Erriberabeitia eta Ribabellosa arteko tartek nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko zona eta uren babes zona gisa kalifikatutako lurri eragiten diela, eta Quintanilla Erriberabeitia eta Igaiko oinarri estazioaren arteko trazadurak, aldiz, nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko zona eta ingurumen hobekuntzarako babes zona gisa kalifikatutako lurri. Era berean, txostenean jasotzen denez, bat etorritik indarrean dauden plangintzako arau subsidiarioetan jasotakoarekin, horrela kalifikatutako zonetan erabilera onargarritzat jotzen dira lurpeko lineen azpiegiturak.

Aurrekari horiei oinarri juridiko hauek aplikatu behar zaizkie:

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztergai den espedientea ebazteko, bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuak xedatutakoarekin.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzorian, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jardura eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira"

Bat etorri 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizazinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratuak zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogege eguneko jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Urriaren 22ko 549/2024 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onepena ematea eta jendaurrean jartzeko 20 eguneko epea irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 124. zenbakian egin zen, 2024ko urriaren 30ean. Horretarako emandako epean ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Proiektuaren interes publikoari dagokionez, Telekomunikazioei buruzko ekainaren 28ko 11/2022 Lege Orokorren 1. artikulua honako hau zehazten du: "Lege honen xedea telekomunikazioak arautzea da, eta horren barruan sartzen dira komunikazio elektronikoen sareak instalatzea eta ustiatzea, komunikazio elektronikoen zerbitzuak ematea, horiei lotutako baliabideak eta zerbitzuak, ekipo erradioelektrikoak eta telekomunikazioko ekipo terminalak..."

2. artikulua ezartzen duenez, "telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira, eta lehia askearen araubidean ematen dira"; eta 3. artikulua, bestalde, honako hauek jasotzen ditu legearen helburu eta printzipioen artean:

"c) Interes orokorreko helburua lortzearen, komunikazio elektronikoen sareak hedatzea eta zerbitzuak ematea sustatzea, konektagarritasuna, oso gaitasun handiko saretarako sarbidea (sare finkoak, mugikorak eta hari gabekoak barne) eta muturretik muturrerako elkarrengarritasuna sustatuz, berdintasun baldintzetan eta diskriminaziorik gabe.

d) Sareen hedapenean eta komunikazio zerbitzuen prestazioan berrikuntza bultzatzea, zerbitzu unibertsala bermatzeko eta Internetarako sarbidean eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) dagoen desberdintasuna murrizteko, arreta berezia jarriz Internetarako sarbide funtzionala hobetzearekin lotutako herritarrentzako sareen eta zerbitzuen hedapenean."

Lege horren III. tituluak zerbitzu publikoko betebeharrak eta izaera publikoko eskubide eta betebeharrak aipatzen ditu, sareen horniduran eta komunikazio elektronikoen zerbitzuak ematean. Honela dio 37. artikulua: "1. Zerbitzu unibertsaltzat hartzen da kontsumitzaile guztientzat bermatzen den zerbitzu multzo definitua, edozein dela ere haien kokapen geografikoa (...) Zerbitzu unibertsalean sartutako zerbitzuak (...) honako hauek dira: a) Banda zabaleko Internetarako sarbide egoki eta eskuragarriko zerbitzua, kokapen finko baten azpiko konexio baten bidez (...); b) Ahots komunikazioko zerbitzuak, kokapen finko baten azpiko konexio baten bidez. (...)"

Bestalde, aurkeztutako proiektuan jasota dago Telefónica de España SAU Estatuko lurraldean komunikazio elektronikoko zerbitzuak emateko gaitutako erakundea dela, eta lege gaituta dagoela telefono sareen azpiegiturak instalatzeko. Era berean, jasota dago, azaroaren 17ko ITC/3231/2011 Aginduaren arabera, Telefónica izango dela kokapen finko batetik komunikazio elektronikoen sare publikorako konexioaren hornidurari eta jendearentzat eskuragarri dagoen telefono zerbitzua emateari buruzko zerbitzu unibertsaleko elementuak emateaz arduratzen den operadorea, eta operadore gisa erregistratuta dagoela Telekomunikazioen Lege Orokorren 7. artikuluan araututako operadoreen erregistroan.

Azpiegituraren berezko ezaugarriengatik kokatu beharra dago landa eremuan.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Adieraztea interes publikokoa dela Erriberabeitiko udalerriko lurzoru urbanizazinean, Ribabellosa, Quintanilla Erriberabeitia eta Igai kontzejuetan, zuntz optikoa kanalizatzeko Telefónica de España SAUk sustatutako proiektua (proiektu zk.: 01-02139394), bat etorri lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5 a) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena.- Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal ebazpenaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean; edonola ere, berraztertzeko errekurtsioa jarri ahalko zaio, nahi izanez gero, egintza eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsio ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 17a

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*  
**LAURA PÉREZ BORINAGA**